

Gipuzkoa

VI. Inkesta Soziolinguistikoa

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritza




AURKIBIDEA:

1. Hizkuntza gaitasuna.....	2
2. Hizkuntzaren transmisioa.....	9
3. Erabilera.....	17
4. Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera.....	22

1. HIZKUNTZA GAITASUNA

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 2016n Gipuzkoan bizi den 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 50,6 euskalduna da, % 17,3 euskaldun hartzailea eta % 32,1 erdaldun elebakarra.


Hizkuntza-gaitasuna. Gipuzkoa, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Donostian % 35,4 dira euskaldunak, % 21,1 euskaldun hartzaileak eta % 43,1 erdaldun elebakarrak

Hizkuntza-gaitasuna. Donostia, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016


Hizkuntza-gaitasuna. Gipuzkoa eta Donostia. 2016

	Gipuzkoa	Donostia
Guztira	605.000	161.000
Euskaldunak	306.000	57.000
Euskaldun hartzaileak	105.000	35.000
Erdaldun elebakarrak	194.000	69.000

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Azken 25 urteotako bilakaerari dagokionez, gaur egun 1991n baino 61.000 euskaldun gehiago daude Gipuzkoan. Ehunekoetan 6,9 puntuko hazkundera izan dute euskaldunek (% 43,7 versus % 50,6).

Euskaldunen bilakaera. Gipuzkoa, 1991-2016



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016


Euskaldun hartzailleek ere hazkunde handia izan dute 25 urte hauetan, 6,6 puntuko hazkundera hain zuzen (% 10,7 versus % 17,3).

Erdaldun elebakarrek, aldiz, 13,5 puntuko jaitsiera izan dute (% 45,6 ziren 1991n eta % 32,1 dira 2016an).

Erdaldun elebakarren beherakada eta euskaldunen hazkundera are azpimarragarriagoa da kontuan hartzen baditugu azken urteotan gure gizarteak bizi izan dituen aldaketa soziodemografikoak. Batetik, euskal gizartea gero eta zaharragoa da. Jaiotze-tasa oso txikia da; hortaz, gazteen multzoak, euskaldun gehien biltzen dituen multzoa izanik, gero eta pisu txikiagoa du gizarte osoarekiko.

Gipuzkoako euskaldunen adinari erreparatuz gero, ikus daiteke euskaldunen ehunekorik handiena 35 urtetik beherakoen artean dagoela, 16-24 eta 25-34 adin-taldeetan. Hala ere, euskaldunen hazkundera 50 urtetik beherako adin-talde guztietan gertatu da. Gertakari hori, gainera, ez da berria, halaxe gertatu izan baita azken 25 urteotan, baina agerikoagoa da gazteen artean. Horrela, 16 eta 24 urte bitartekoen % 83,2 euskaldunak dira gaur egun; 1991n, aldiz, % 41,8 ziren.

Gipuzkoan adinaren arabera bilakaerari dagokionez, orain dela 25 urte aurreikusten zen joera areagotu egin da. Hau da, gazteenen euskalduntzea agerikoa da, eta erdaldun elebakarren ehunekoaren jaitsiera, orokorra. 16-24 urte bitartekoaren artean hamarretik zortzi baino gehiago euskaldunak dira (% 83,2).




Hortaz, euskaldunen hazkundea gazteenetatik ari da zabaltzen. Multzorik erdaldunena helduena da, baina urteak aurrera egin ahala multzo hori ari da euskaldunak irabazten azpitik eta erdaldun elebakarrak galtzen goitik. Hau da, gazteak gero eta euskaldunagoak diren heinean, nagusien multzoan (duela 25 urtera arte euskaldunen ehunekorik handiena zuen) haziz doa erdaldun elebakarren ehunekoa.

Euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko

Gipuzkoan 16 urte edo gehiagoko euskaldunen % 35,9k erraztasun handiagoa du euskaraz egiteko erdaraz baino, hau da, euskal elebidunak dira. Euskaldunen multzorik handiena da Gipuzkoan. Euskal elebidunen ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoek eta 16-24 urte bitartekoek dute (% 47,4 eta % 42,5 hurrenez hurren), eta txikiena 35-49 urte bitartekoek (% 28,1).

Euskaldunak erraztasunaren arabera. Gipuzkoa, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Elebidun orekatuek, aldiz, erraztasun bera dute euskaraz zein erdaraz egiteko eta euskaldunen % 34,3 dira. Elebidun orekatuen ehunekorik handiena 35-49 eta 50-64 urte bitartekoen artean dago (% 41,7 eta % 40,4 hurrenez hurren).

Azkenik, erdal elebidunak erraztasun handiagoa du erdaraz egiteko euskaraz baino, eta % 29,8 dira. Euskaldunen multzorik txikiena da Gipuzkoan. Erdal elebidunen ehunekorik handiena 16-24 urte bitartekoek dute (% 34,9).


Euskaldunak erraztasunaren arabera. Donostia, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Donostian 16 urte edo gehiagoko euskaldunen zortzitik bat euskal elebiduna da (% 12,2). Elebidun orekatuak zortzitik hiru dira (% 36,5). Azkenik, erdia erdal elebidunak dira (% 51,3).


Euskaldunen erraztasuna, adinaren arabera. Gipuzkoa, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Gipuzkoako euskaldunen erraztasuna aldatu egin da 1991tik hona, bereziki elebidun orekatuen ehunekoa. Duela 25 urte euskal elebidunen eta erdal elebidunen ehunekoak handiagoak ziren 2016koak baino (3,5 eta 3,6 puntuko aldea hurrenez hurren), aldiz, elebidun orekatuen ehunekoa txikiagoa zen (7,1 puntu).

Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. Gipuzkoa, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016


2. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA

Lehen hizkuntza

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Gipuzkoako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 32,9k euskara soilik jaso du etxean, eta % 7,9k euskara eta erdara jaso ditu etxean. Era berean, bostetik hiruk (% 59,2) erdara soilik jaso du etxean. Erdara diogunean, gaztelaniari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiagoren lehen hizkuntza errumaniera, arabiera, portugesa eta abar direla.

Lehen hizkuntza. Gipuzkoa, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Donostiako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 15,6k euskara soilik jaso du etxean eta % 8,7k euskara eta erdara jaso ditu etxean. Azkenik, % 75,7k erdara soilik jaso du etxean.

Lehen hizkuntza. Gipuzkoa eta Donostia, 2016 (%)

	Gipuzkoa	Donostia
Guztira	605.000	161.000
Euskara	32,9	15,6
Euskara eta erdara	7,9	8,7
Erdara	59,2	75,7

Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016


Duela 25 urte Gipuzkoako biztanleriaren ehuneko handiagoak jaso zuen euskara soilik etxean gaur egun baino (1991n % 37,4 eta 2016an % 32,9).. Etxean euskara eta gaztelania batera, aldiz, ehuneko txikiagoak jaso zuen gaur egun baino (1991n % 5,1 eta 2016an % 7,9), eta baita etxean erdara soilik ere (1991n % 58,5 eta 2016an % 59,2).

Gaur egun Gipuzkoako adin-talde guztietan gehiengoa dira lehen hizkuntza erdara dutenak, baina badira aldeak. Ehunekorik altuena 50-64 urte bitarteko taldean dago, baina adin horretatik behera gutxituz doa etengabe, eta handituz doa etxean euskara soilik edo erdararekin batera jaso dutenen ehunekoa, 16-24 urte arteko gazteen taldera iritsi arte (% 55,7).

Lehen hizkuntza euskara soilik jaso dutenen kasuan, Gipuzkoako ehunekorik txikiena (% 29,4) aurkitzen da 50-64 urte bitarteko taldean, eta adin horretatik behera haziz doa ehunekoa, talderik gazteenean (16-24 urte) % 41,9 izan arte. Duela 25 urte alderantzizkoa zen egoera. Lehen hizkuntza euskara soilik jaso zutenen ehunekorik altuena (% 51,4) adin-talde zaharrenean zegoen (65 urte

edo gehiago), eta adinean behera egin ahala gero eta txikiagoa zen ehuneko hori, baliorik baxuenera (% 29,4) iritsi arte, 16-24 urte bitarteko gazteen taldean.

1991tik hona lehen hizkuntzan gertatu den aldaketarik handiena 16-24 urte bitarteko gazteen taldean nabarmentzen da gehien. Izan ere, duela 25 urte, gazte horien % 7k euskara eta erdara jaso zituen lehen hizkuntza gisa, eta gaur egun % 13,8k jaso du, hau da 6,8 puntuko aldea. Aldi berean, adin-tarte horretan % 29,4k euskara jaso zuen lehen hizkuntza bakartzat, eta gaur egun % 41,9k jaso du (12,5 puntu gehiago).



Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera

Gipuzkoako 16 urte edo gehiagoko euskaldunak etxean jaso duten hizkuntzaren arabera nolakoak diren aztertuko da orain.


Euskaldunen % 64,4k euskara soilik jaso du etxean, hau da, euskaldun zaharrak dira; % 13,4k euskara eta erdara jaso ditu etxean, eta jatorrizko

elebidunak dira; eta azkenik euskaldunen % 22,2k erdara jaso du etxean eta euskaldun berriak dira. Azken hauek etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian. Azpimarratzekoa da multzo hori pisu handia hartzen ari dela euskaldunen artean.

Donostian euskaldunen % 43,1 euskaldun zaharrak dira, % 19,9 jatorrizko elebidunak eta % 37 euskaldun berriak.

Euskaldunen multzoa asko aldatu da azken 25 urteotan. 1991n euskaldun gehien-gehienak euskaldun zaharrak ziren (% 81,7), hau da, hamar euskaldunetik zortzik etxean jaso zuten euskara, eta horixe zuten lehen hizkuntza bakarra. 2016an, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere, jatorrizko elebidunek pisu handia hartu dute, eta are handiagoa euskaldun berriek.


Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera.
Gipuzkoa, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Azken 25 urteotako hizkuntza-gertakari nagusia izan da, hain zuzen, jatorrizko elebidunen eta euskaldun berrien etengabeko hazkundera. Gaur egun Gipuzkoan bizi diren 16-24 urteko euskaldunen erdia euskaldun zaharrak dira,

eta beste erdia jatorrizko elebidunak eta euskaldun berriak (% 16,6 eta % 32,9 hurrenez hurren).



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, eta zein den gurasoen hizkuntza-gaitasuna.

Kontuan izan behar da inkestatuen artean Gipuzkoako 16 eta ia 100 urte bitarteko pertsonak daudela. Horren ondorioz, orain dela ia ehun urtetik hona gurasoek nola transmititu duten euskara jakin dezakegu.

Guraso biak euskaldunak direnean, inkestatuen % 90,2k euskara soilik jaso du etxean, % 5ek euskara eta erdara, eta % 4,8k ez du euskararik jaso.


Gurasoetako bat baino ez izanik euskalduna, asko gutxitzen da transmisioa, % 46,9k erdara soilik transmititu du eta % 53,1ek euskara eta erdara.

Aipatzekoa da guraso biak euskaldunak izanik euskararen transmisioa handiagoa dela adinak behera egin ahala. Horrela, transmisiorik handiena gertatzen da inkestatuek 16-34 urte bitartekoak direnean. Adin-tarte horretan % 94,6k euskara soilik jaso du etxean, eta % 2,5ek euskara eta erdara. Gaur egun, beraz, guraso biak euskaraz dakitenean transmisioa ia erabatekoa da Gipuzkoan (% 97,1).

Era berean, guraso biak euskaldunak izanik, 35-50 urte bitarteko inkestatuen % 92k jaso du euskara soilik etxean, eta % 3,2k euskara eta erdara.

Azkenik, 50 urte edo gehiagokoan taldean dago transmisiorik baxuena, horien % 87,3k euskara soilik jaso du etxean, eta % 7,1ek euskara eta erdara.

Transmisioa guraso biak euskaldunak direnean, adinaren arabera Gipuzkoa, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean alde handiak daude transmisioan, inkestatuaren adinaren arabera. Adinean behera egin ahala, euskararen transmisioa gero eta handiagoa da.

Horrela, inkestaturen gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, etxean euskara eta erdara jaso ditu 16-34 urte bitartekoen % 78,7k, 35-49 urte bitartekoen % 59,5k eta 50 urte edo gehiagokoen % 31,4k.

Transmisioa gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean adinaren arabera. Gipuzkoa, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntza-transmisioa

3-15 urte bitarteko seme-alabak dituzten familien hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatuei galdetu zaie zein hizkuntza transmititu dieten seme-alabei. Transmisio hori aztertzeko gurasoen hizkuntza-gaitasuna izan da kontuan.

Guraso biak euskaldunak direnean

Gurasoak biak euskaldunak direnean, seme-alaben % 85ek euskara soilik jaso du etxean % 13k euskara eta erdara eta % 2k erdara.

Gurasoetako bat denean euskalduna


Gurasoetako bat baino ez denean euskalduna % 75ek euskara eta erdara transmititu ditu eta % 25ek erdara.

3. EUSKARAREN ERABILERA

Gipuzkoan, 16 urte edo gehiagoko biztanleen % 50,4k euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:

- a) % 39,5ek euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b) Aldi berean, % 10,9k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.


Euskararen erabileraren tipologia. Gipuzkoa, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Gainerako guztiek (% 49,6) erdara erabiltzen dute beti edo ia beti. Kontuan hartu behar da, hala ere, azken hauen artean badela multzo txiki bat (% 4,4) oso gutxitan bada ere euskara ere erabiltzen duena.


Euskararen erabileraren tipologia. Donostia, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Erabilerari buruzko emaitzetan badago alderik Gipuzkoaren eta Donostiaren artean. Izan ere, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak % 19,7 dira Donostian. Horietaz gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 13,3 dira.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera Gipuzkoa, 1991-2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilerak 6,4 puntu egin du gora Gipuzkoan (% 33,1 versus % 39,5).

Oro har euskarak erabilera-eremu guztietan egin du gora: etxean, eremu hurbilean eta eremu formalean. Azken 25 urteotan gorakadarik handiena eremu formalean gertatu da, bereziki lankideekin eta udal eta osasun zerbitzuetan. 2016an, Gipuzkoako biztanleen % 40,1ek euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lankideekin, % 45,6k udal zerbitzuetan eta % 38,7k osasun-zerbitzuetan (1991n, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zutenak hiru eremu horietan % 31,4, % 30,2 eta % 19,8 ziren, hurrenez hurren).


Eremu hurbil eta formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak Gipuzkoa, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Eremu formaletik kanpo, aipatzekoa da etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 35,9 direla, 1991n baino 1,2 puntu gehiago. Etxeko kideen arteko erabilerari erreparatuz, honako hau da erabilera bikotekideen artean % 28,9 (1991n % 29,4), seme-alabekin euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 40,2 dira (1991n % 34,6), neba-arrebekin % 36,6 (1991n % 30,8), aitarekin % 32,9 (1991n % 20) eta amarekin % 31,9 (1991n % 25). Euskararen erabilera igo egin da etxeko kide guztiekin, bikotekidearekin izan ezik.

Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak.
Gipuzkoa, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen portzentajea gero eta txikiagoa da 35 urtetik gorakoen artean eta gero eta handiagoa adin horretatik beherakoen artean. 2016an, 65 urtetik gorakoen artean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 33,5 dira (1991n % 45,9), 50 eta 64 urtekoen artean % 32,2 (1991n % 34), 35 eta 49 urtekoen artean % 40,3 (% 31,3 zen 1991n), 25 eta 34 urtekoen artean % 52,1 (1991n % 32,5) eta 16 eta 24 urtekoen artean % 54,7 (1991n % 26,2).


Beti erdara erabiltzen dutenak nagusi dira 50-64 eta 65 urte edo gehiagokoen artean (% 55,1 eta % 54,4 hurrenez hurren). Gainerako adin-taldeetan, jaitsiz doa adinean behera egin ahala. Horrela, beti erdara erabiltzen dutenen ehunekorik txikiena 16-24 urte bitartekoek dute (% 20,1).

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. Gipuzkoa. 1991-2016 (%)

1991



2016



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Beraz, orain arteko emaitzak kontuan hartuta, esan daiteke Gipuzkoan gero eta pertsona gehiagok erabiltzen duela euskara eta gero eta gutxiago direla erdara hutsean aritzen direnak. Hau da, ahozko euskararen presentzia gero eta handiagoa da bai familiaren esparruan, bai eremu hurbiletan, baita eremu formaletan ere.

4. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, 16 urte edo gehiagoko biztanleek hainbat esparrutan euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten iritzia araberako tipologia eratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.


Inkesta Soziolinguistiko honen arabera, Gipuzkoako 16 urtetik gorako biztanleen % 74,6 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 20,4 ez alde ez aurka eta % 5 aurka.

Euskararekiko jarrerak lotura handia du hizkuntza-gaitasunarekin. Izan ere, euskararen erabilera sustatzearen alde azaltzen da euskaldunen % 90,3, euskaldun hartzaileen % 66,8 eta erdaldun elebakarren % 54,1.

Donostiako biztanleriaren % 60,7 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, % 30,6 ez alde ez aurka eta % 8,8 aurka.

Adinari dagokionez, euskararen erabilera sustatzearen aldekoenak gazteenak dira: 16-24 urte bitartekoen % 78,9 eta 25-34 urte bitartekoen % 79,7.

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera.
Gipuzkoa, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016

Euskara sustatzearen aldeko jarrerak gora egin du azken 25 urteotan. Izan ere, 1991n % 59,9 zegoen euskara sustatzearen alde, % 31,3 ez alde ez aurka eta % 8,8 aurka zegoen.

Hortaz, euskara sustatzearen alde dauden ehunekoak 14,7 puntuko igoera izan du (% 59,9 versus % 74,6). 2016an 1991n baino gutxiago dira ez alde ez aurka agertzen direnak (% 31,3 versus % 20,4), eta baita aurka daudenak ere (% 8,8 versus % 5).